

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua robot bat sortzea da. Robot hau, Cleanwinrob izenekoa, fabrika, enpresa, denda, eraikuntza, etxe (estetikoki) handiak direnentzat zuzenduta dago.

Gure robota leihoak garbitzeko helburua dauka. Enpresa, denda eta etxe handiak, leiho oso altuak dituzte eta gure kabuz ezin ditugu garbitu ez garelako iristen. Kasu batzuetan pertsona batzuk bere bizitza arriskuan jartzen dute leiho altu hauek garbitu ahal izateko, eta horregatik robot hau sortzea erabaki dugu. Seguruagoa eta erosoagoa izango da, eta nahiz eta pertsona batzuei lana kendu, era berean lana erraztuko diegu, ez dutelako bere bizitza arriskuan jarriko eta beste gauza batzuk egiteko aukera izango dutelako.



Cleanwinrob, aplikazio baten bitartez funtzionatuko du. Hau, etxetik, enpresa edo dendatik kanpoan gaudenean funtzionamenduan jarri dezakegu. Robot honek ez du soinurik egingo, agian enpresa garrantzitsu batean erabiltzen dutelako, eta lanean hari diren bitartean ez dutelako nahi molestiarik, horregatik, robot honek era isilean egingo du lan.

Robot hau, webgunean eta denda fisikoetan erosi daiteke. Gure webgune propioa izango dugu eta bertan robotaren informazioa eta instrukzioak azalduko dira. Alokatzeko aukera ere izango dute, batzuetan denbora bitarte batean bakarrik erabili nahi izango dutelako.